

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia

Álvaro Baraibar Etxeberria

Iruñean jaio zen 1970ean.

Historian doktore Nafarroako Unibertsitatean, bertan garatu du ibilbide profesionala ikerlari gisa. Era berean, bisitari izan da Txileko Potifize Unibertsitate Katolikoan.

Historiako irakasle eta Humanitateko Ikerketa eta Multimedia Laborategiko zuzendari izan da Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatean. Azken urtetan, gainera, honako beste jarduera hauek ere burutu ditu: *Hipogrifo. Revista de literatura y cultura del Siglo de Oro* aldizkari akademikoko editore (2013tik), Iberoamericana/Vervuert argitaletxearen Liburutegi Indianoko idazkari exekutibo (2010etik), Áurea Liburutegi Digitaleko BIADIG bildumako zuzendari (2014tik), eta Ikasketa Indianoen Zentroa-Ikasketa Indianoen Proiektuko zuzendariordea, Peruko Pazifikoko Unibertsitatearekin (2015etik).

Ikerlari lanean, Nafarroako historia garaikidean espezializatu da, zehazki demokraziarako trantsizioan. Era berean, *Extraño federalismo. La vía navarra a la democracia* (1973-1982) eta *Historia y memoria de los símbolos de Navarra. De las “cadenas” a la “Laureada” y la Ley Foral de Símbolos* liburuaren egile da, besteak beste.

Bere ibilbide politikoa bizi den herrian garatu du, Garesen. 2007-2011 legealdian Garestarren Bilguneko zinegotzi eta Kirol, Gazteria eta Herritarren Parte-Hartze Ataleko arduradun izan zen, bai eta herri hortako Agenda 21eko koordinatzaile ere.

2015eko urrian Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi izendatu dute.